

EUROPAKO GUTUNA ETA HERRITARREN HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

EPAITEGIETAN

Sarrera

Beren eskubideak urraturik ikusten dituztenean jotzen dute Arartekoarengana herritarrek. Ez da harritzekoa, hortaz, kexa hauen bitartez errealitateari hurbilduz gero, sistemaren ahuleziak gehiago nabarmentzea, bere lorpenak baino. Hala ere, hizkuntz eskubideen kontuetan, eta batez ere Justizia Administrazioari dagokienez, ezin hobetzat jotzen dugu errealitatea ezagutzeko bide hau, arauak aurkezten duten irudiarekiko aldea norainokoa denez ohartzeko ezinbestekoa baita, sarritan, eskubideok egikaritu nahi dituzten pertsonen bizipenak mahaigaineratzea.

Kexa horiek, jakina, egiaztatu egiten ditugu, eta hemen esango duguna euren funtsa aztertu eta gero atera ditugun ondorioetatik sortzen da. Norbanako kexadunen eskarmentuekin batera, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak gai honetaz egindako lanaren bitartez ezagutu ditugunak ere izan dira ekarpen honen sorburu. Beti ere, Europako Gutuna hizpide dugun neurrian, beraren aginte zein gomendioak betetzeko aipa daitezkeen arazoetara murriztuz.

Euroitunaren betetzerik eza, hiritarren kexen testuinguru

Ezaguna da, dagoneko, Eskualde eta Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunak bere 9. artikuluan dioena, baita 2005ean Adituen Batzordeak egindako ebaluaketa ere. Azken honetan isladatzen den egoera kezkarriari aurre egitearren gomendio zehaztugabea egin zuen, urte berean, Europa Kontseiluko Ministro Batzordeak. Horietan guztietan nabaritzen dira, baita erantzun gisa Espainako Gobernuak 2006. urtean aurkeztu zuen txostenean ere, esparru honetan eskubideak benetazkoak izatea ekiditen duten eragozpen batzuk. Herritarren aldarrikapenen testuingurua ezartzen duten heinean, euren kexen harira aztertuko ditugu garrantzitsuenak.

Hasteko, Botere Judizialaren Legeak 231. artikuluan esaten duena agertzen zaigu behin eta berriro, nola ez, esparru honetan sortutako kexei ematen zaien erantzunaren ardatz eta muga. Arau honek epaitegietan euskara

erabiltzeko eskubidea ematen du, baina orain arte izan duen interpretazioari jarraituz, Itunaren eskubideak bermatzeko baino gehiago, murrizteko erabili da.

Horixe nabari da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak behin eta berriro ematen dituen erantzunetan, herritarrek bere 9. artikulua aldarrikatuz berarengana jotzen dutenean. Izan ere, epaitegietako hizkuntza ofiziala gaztelania izanik, beste hizkuntza bat erabili ahal izatearen baldintza zera izango zela: gaztelera ez jakiteak sor dezakeen indefentsioa; ez, ostera, itzultzaile baten bitartez adierazi behar izateak ekarri dezakeena. Bestela esanda, hiritar batek galdatu ahal du Bilboko epaitegietan euskaraz aritzea, galdatu ere, bere ama-hizkuntza suediera edo suahiliera izatekotan ele horietaz jarduteko legokiokeen eskubide berberaz. Ezberdintasun bakarra egotekotan, euskaldunen kalterako izango zen, zeren hemengo epaitegietan jarduten duten euskaldun gehien-gehienek askoz hobeto egiten baitute gazteleraz –besteak beste, Konstituzioak behartuta daude ezagutzera- etorri ahal zaizkigun suediar gehienek baino, beraz legeak euskara erabiltzeko onartzen duen oinarria, indefentsioa alegia, txikiagoa izango zen ia beti haien kasuan.

Gatazka eta lankidetzaren ereduak: bateraezinak ote?

Jakina, salaketak sortutako gatazkarena ez da eredu bakarra, ezta eraginkorra ere. Lankidetzaren ereduari eutsiz, ekimen ugari antolatzen dituzte erakundeek, epaitegietako eragileei euskarazko trebakuntza eskeintzearen eta, neurri horretan, eskaera egiten denean berezko moduan –hau da, itzultzaile gabe- bidera dadin. Onartu beharra dago, bestalde, eskarmentuak erakusten duela trebakuntza falta ez dela, noski, euskara erabiltzerik ezaren arrazoi bakarra, -eztabaida hori beste tailer baten gaia izango zen, izan ere. Egia da, azkenik, gauzak apurka apurka aldatu beharko direla, egitura sendoak eraikiko badira horrenbeste euskarri behar dituen esparru honetan.

Hala ere, euskararen ofizialtasuna ezarri zenetik ea 30 urte igarota, gauzak nondik nora doazen jakin nahi badugu, ezin gara ekimen hauen zerrendak behin eta berriro aurkezten ibili. Ezinbestekoa da aztertzea, denborak ematen duen perspektibaz, zeintzuk diren joerak, zer eraginkortasun izan duten neurri hauek guztiek, indarrean sartu zirenetik, Itunaren

9.artikuluaren hitzarmenak betetzeko. Ariketa erraz bat egin ahal dugu, hain zuzen ere, epaitegietan euskaldunen eskubideak bermatzeko bidean ote gauden jakiteko: ikus dezagun ibilbide honen hasieran zenbat epaitegitan ahal zen jardunbide osoa euskaraz egin eta, irizpide berari eutsiz, gaurko egoerarekin erkatu, ea harrez geroztik zenbat epaitegitan lortu den ahalmen nahikoa itzultzailerik gabe jarduketa guztiak hemengo berezko hizkuntzaz egiteko, langilego osoak euskara menderatzen duelako.

Zer egin daiteke, ordea, trebakuntza hori nahikoa ez izateagatik, edo beste edozein arrazoi dela medio, Euroitunaren 9. artikulutik ondorioztatzen diren eskubideak aldarrikatzeak gatazka sortzen badu? Begi-bistan dago kexa aurkeztu duten hiritarrei erantzuten zaiena. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ihardespena bezain adierazgarria suertatzen da horrelakoetan Justizia Ministroaren Kabineteak emandakoa: Botere Judizialaren Legearen 231 artikulua ahalbideratzen du euskal epaitegietan euskara erabiltzea, beti ere hizkuntzaren egoeraren arabera eta baldin eta epaileak ez badu kontsideratzen horren bitartez oztopatzen denik justizia behar bezala administratzea. Hau da, gatazka sortuz gero, euskara aukeratzeko ahalmena epailearen esku geratzen da eta ez dagokio, Euroitunak dioen bezala, alderdietatik edozeini. Eta norbaiti iruditzen bazitzaion artikulua honek euskaraz deklaratu nahi duen hiritarraren eskubideak urratzen dituela, horra hor Epaitegi Konstituzionalaren 166/2005 Autoa, Bizkaiko Probintzia Entzutegiak aurkeztutako konstituziokontrakotasun auzia atzera bota zuena, defentsa eskubidea itzultzailearen bitartez egikaritu behar izatea egokia delakoan.

Funtzionarioen mugikortasuna aipatzen da, behin eta berriz, auzi batean euskaraz eta itzulpenik gabe jarduteko ezintasunaren azalpen gisa. Egia esateko, epaile, magistratu, fiskal eta idazkari judizialek Estatuko edozein tokitan har badezakete lanpostua, ez da bat ere errealista euskaraz aritzeko behar den ahalegina egingo dutela espero izatea. Interesgarri izango zen oso, ildo horretan, ahalegin hori zenbat epaile, fiskal eta idazkarik egin duten ezagutzea, baita emaitzak ere. Adierazgarri suertatzen da, halaber, gure autonomia erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentearen hautatzean gertatutakoa. Badakigunez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 341.1

artikuluaren arabera, euskara ezagutzea aintzat hartuko da horretarako merezimendu gisa. Bada, aukeratutako hautagaia ez zekien euskaraz –eta bere jende aurreko adierazpenetan argi utzi zuen bere ustez ez zuela zertan jakin behar-, inguruabar horrek ez zuen inolako eraginik bere izendatzean, eta arrazoi horretan oinarrituta Hizkuntz Eskubideen Behatokia helegitea ipintzen saiatu zenean, Auzitegi Gorenak –arrazoi formalak direla medio- ez zuen onartu.

Euroitunaren eraginkortasuna

Gauzak horrela, epaileek euskara menderatu behar izatea ezin da gaur egun, inolaz ere, “muturreko aldarrikapen”tzat hartu. Euroituneko 9.1. artikuluko hitzarmenak bete ahal izateko bide errealista eta logiko bakarra da, osterantzean bere edukiak BJJren 231 artikuluekin talka egiten baitu, epaileen zein administrazioaren azken erabakiek ematen dioten interpretazioa aintzat hartuta behinik behin. Interpretazio honen azken adibidea Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak orain dela hiru hilabete eman digu, Eusko Jurlaritzak gure Erkidego Autonomoaren Justizia Administrazioaren Hizkuntz Normalizaziorako aurkeztu zuen Dekretuaren egitasmoari buruz txostena egin zuenean. Txosten horren ardatza Botere Judizialeko Lege Organikoaren 521 eta 530 artikulua dira, Epaitegi Konstituzionalak bere 270/2006 epaian egin zuen interpretazioaren arabera. Kontseiluak dioenez, baldintza bat bete beharra dago Justizia Administrazioko langileei hizkuntz eskakizunak ezarri ahal izateko: bakarrik onartzen da baldin eta lanpostuaren zereginen izaeratik ondorioztatzen bada ezagutze hori ezinbestekoa dela. Horren arabera, egoera soziolinguistikoak ezin du zehaztu, ez gutxienez arlo honetan, euskalduntze politika. Hau da, epaitegi bateko lanpostu zehatz bati hizkuntz eskakizunak ezarri ahal izateko, ez da kontuan izango epaitegi hor non dagoen kokatuta, lanpostu horretan zer egiten den baizik. Dagoeneko ikusi dugu Kontseiluak duen iritzia zeregin horiek eta euskaraz aritzeko ahalmenaren arteko loturaz. Benetan bermatu ahal da baldintza horietan Itunaren 9. artikuluko hitzarmenak?

Testuinguru kontraesankor honetan sortzen dira gure bulegora heltzen diren kexak. Epaileari desobeditzeagatik ipinitako zigorrak, bakarrik itzultzailearen bitartez deklaratzeari uko egiteagatik; alderdien arteko

berdintasunik eza, batek epaileari zuzenki hitz egiten dion bitartean besteak zeharkako bide batez –itzultzailearena, alegia- bere burua adierazteko behartuta egoteagatik; behin eta berriro errepikatu beharreko jakinarazpenak, itzultze falta dela eta; beste kasu batzuetan fiskalak egiten dio uko itzultze-zerbitzua erabiltzeari eta, ondorioz, atzera botatzen ditu ezkontza-agiriak euskara hutsez bidaltzen bazaizkio. Adibide hauek eta beste askok erakusten dute Itunak konpromezu irmo batzuk ezartzen baditu ere, beren betetzea praktikan exijitzeak, ezinbestez, konponezinak diren disfuntzioak sortzen dituela, alderdien zein kasuan-kasuko epaile-fiskalen sen eta gogo onaren eskuetan geratzen direnak.

Eskarmentu hau guztia kontuan edukiz gero, Euroituna eta Espainiako legearen arteko elkar-eragitearen ezaugarri batez ohartu beharra dago: alde batetik, gure legeek –eta orain arte jaso duten interpretazioak- sortzen dituzten eragozpenek azaltzen dute Itunak konpondu nahi izan duen egoera; bestetik, berriz, eta aldi berean, Euroitunaren edukiaren interpretazio murriztailea egiten dute, bere eraginkortasuna baldintzatuz. Testuinguru horretan, oso erlatiboa izango da Euroituna aldarrikatzearen erabilgarritasuna egoera hobetzeko: bai “lankidetzaren eredu” bai “gatazka eredu” hautatuz gero, argudioak aurreikusgarriak izango dira eta emaitzak, tamalez, oso mugatuak. Bere hitzarmenok bermatzeko ezinbestekoa izango zaigu euskara jakitearen betebeharra, baina horretarako beti aipatuko da eragozpen gisa indarrean dagoen lege-arauketa.

Sorgin-gurpil hori gure patu bihur ez dadin, legea aldatzen ez den bitartean, ez zait beste irtenbiderik bururatzen, berezko epaitegiak eratzea baino, beren zirkuito osoan euskaraz aritzeko gaitasuna duen langileez osatuak. Eta bukatzeko, ez dezagun ahaztu epaitegiok euskara erabiltzeko aukera bakarrik eskainiko zigutela. Aukera horri probetxu ateratzeko, baita horrelako erakundeak noizbait sor daitezen, ezinbestekoa da euskal hiztunek, bai bezeroek baita profesionalek ere, euskaraz aritzeko beldurra –eta agian erdaraz aritzeko erosotasuna?- galtzea. Ziur egon gaitezten, euskarak Justizia Administrazioan duen etorkizuna, beste edozein esparrutan bezala, ez datzala

azken batean inolako itunetan, euskaldunok gure hizkuntza erabiltzeko dugun gogoan baizik. Artzeren hitzak hemen ere gogoratu behar ote?